



ARESOKO INGURUETAN MENDI MARTXA

Etzi izango da II. Mendi Martxa, 08:00etan hasita; 26 kilometro egin beharko dituzte mendizaleek >5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-09-04**

VIIURTEA 1.767.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Alkizan gaztettoek ederki igaro zuten jaien lehen egunean. I. GARCIA

ALKIZAKO EKIN HASI DIRA ARANTZAZUKO AMAREN JAIK

TOLOSALDEA Gazteak izan ziren protagonista, Alkizako jaien lehen egunean; Lizartzako Udal Alternatiboaren jaiak gaur hasiko dira 4

'Ibarra, azoka eta piparra' eguna hilaren 27an ospatuko dute


IBARRA V. Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa Gastronomikoan izena emateko aukera dago 3



Tolosaldeko ezker abertzaleak atzo egin zuen agerraldia, Tolosan. I.T.

Ezker abertzaleak mobilizazioetara deitu ditu herritarrak

POLITIKA «PSOEk ezker abertzalearekin amaitzeko estrategiaren ondorio izan diren gertakariak» salatzea izango dute helburu 7



bidali opor
hauetako
argazkiak!

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
helbide elektronikora edo HITZAren
Tolosako edo Leitzako egoitzetara



**LIZARRIBAR
OINETAKOAK**

DENA...

10 €, 20 €
eta 30 €-tan

1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

HITZA udako argazki lehiaketa

Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 telefono zenbakian.

Udan ere ezin aparkatu Tolosan

Pentsatzekoa da abuztuan errazagoa izan daitekeela herrian aparkatzea, ba ez, ez da horrela. Herrian geratu naiz abuztuan, eta autoa hartu behar izan dudanean, oso zaila egin zait aparkatzea. Beste urteetan abuztuan ez zen hain zaila izaten, baina aurtengo udan ezinezkoa zen. Minutu ugari igaro ditut herrian bueltaka. Alde Zaharrean bizi naiz ni, eta normala den bezala, etxetik gertu aparkatzea gustatzen zait. Baina, hau ez da kapritxo bat, behar bat baizik. Zergatik ezin dut nire kotxea etxetik gertu aparkatu? Zergatik jarri nion TAOko txartela, askotan ezin baidiot etekinik atera? Jakin nahiko nukeena da 1 zonaldeko zenbat txartel eman dituzten, eta benetan zenbat leku dagoen guztiotzat aparkatzeko.

Benetan diot, niretzat eta Alde Zaharreko herritar ugariarentzat lehentasun bat da. Eta mesedez, ez daitezela hasi Udalekoak aparkaleku ugari jarri dituztela esanez. Ez duzue, ba pentsatuko San Estebanen aparkatuko dudarik kotxea? Mesedez!

Gorka**Autokarabanak San Estebanen?**

Udako oporraldian irakurri dut: udaletxeak erabaki duela autokarabana guztiak San Estebango parkinera bidaltzea, herriko kaleetan enbarazo gehiago egin ez dezaten. Neri neurri egokia iruditzen zait baina uste dut aparkalekua nolabait kontrolatu beharko luketela, gainontzean lapurretak izatea oso litekeena delako. Zer iritzi du jendeak? Noiztik aurrera ezarriko du neurria udalak??

Mikel**Ertzaintzaren jarrera salatzen dugu**

Idatzi honen bidez, Adunako Ezker Abertzaleak gogor salatu nahi



Adunako ezker abertzaleak ertzaintzaren jarrera salatu du. HITZA

ditu azken egunotan herrian jasadako polizia-jazarpen itogarria eta adierazpen-askatasunaren urraketa larria.

Abuztuaren 13tik 16ra bitartean herriko jaiak izan dira Adunan, eta hori dela eta, pankartak eta preso-en argazkiak jarri ditugu herriko zenbait tokitan. Poliziaren presentzia oso handia izan da hasiera-hasieratik. Pankartak jartzen ari ginen unetik bertatik hasiz iren identifikazioak egiten, eta orduz geroztik, egunero ibili ziren patruilak aurrera eta atzera argazkiak ateraz. Azkenik, abuztuaren 20an Ertzaintzaren 6 patruila herrira etorri eta kendu egin dituzte preso-en argazkiak.

Argazkiak kendu dituzten arren, elkartasunak ez duela etenik izango ohartarazten dugu. Pre-soak ez ditugu ahanzturan utziko,

eta horien eskubideak aldarrikatzen jarraituko dugu. Beste hausnarketa bat ere plazaratzen dugu: «Presoen argazkiak kentzeak ez du gatazka desagerraraziko, alderantziz baizik». Presoen eskubideak aldarrikatzea ez da delitua, sakabanaketa da legez kanpokoa. Hori dela eta, sakabanaketak eta espetze politika anker horrek irauten duten bitartean herriko hornak eta lorategiak injustiziak salatzen jarraituko dugu.

Adunako ezker abertzalea.**Araba etorbideko zubia, itsusia eta ezbeharrezkoa**

Ia bukatzen ari dira Araba etorbideko zubi hori. Estetikoki ez zait oso polita iruditzen egia esan, baina horreke ez dugarrantzi handirik.

B Blogteka **Elikadura gida**

Elikatzen ikasteko, eguneko jatorduak orekatzeko eta jaki bakoitzak duen funtzio erakutsiko digun gida da. Denetarik jatea garrantzitsua da. Kontutan izan behar ditugu neurriak eta jaki bakoitzak egiten duen funtzioa.

Elikagaien gurrupila edo piramide kontutan izanik, multzo bakoitzetik, egunero, bi errazio jaten badut nere elikadura orekatua izango da.

Zati bakoitzean, jaki talde bat dago kokatuta eta 4 kolore erabiltzen dira bakoitzaren funtzioa desberdintzeko, gorria (proteinetan aberatsak dira), horia (energia ematen diguten jakiak daude), naranja (eraiki eta osatu egiten dute eta bestetik energia ematen digute) eta berdea (aberatsak dira bitamina, mineral, ura eta zuntzetan). Kolore bakoitzak jaki taldearen funtzioa nutrienda eta gorputzean duen funtzio nagusia azpimarratzen du (...).

Laburbilduz:

Denetarik jatea garrantzitsua da. Kontutan izan behar ditugu

neurriak eta jaki bakoitzak egiten duen funtzioa. Gure elikadura orekatua izateko egunero:

Bi barazki eta bi errazio fruta jatea ondo etorriko zaigu. Gogoratu fruta eta barazkiak ondo garbitzen eta gordinak jan eskero aberatsagoak direla!

Gogoratu proteina zale amorratuak gariela, gehienbat esnea, esneki eta animalietako produktuek. Barazki plater baten ondoren, dilistak arrozkin jan eskero ondo elikatuta egongo gara. Gure gorputzak beharrak betetea izango ditu. Garrantzitsua da ondo konbinatzea. Beraz, sartu lekaleak eta patata sarriago egunerokoan.

Energiari buruz, azukre azkar ugari sartzen dugu egunero, gure gorputza ez da mugitzen eta horrek gantz pilaketa azkarra eta gitezentasuna eragiten du. Beraz, produktu integral gehiago jatea komeni zaigu, hidratoak ondo banatu eta gorputza gehiago mugitu! Amaia Diaz de Monasterioguren.

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

Heziketa falta

Herritarren artean heziketa falta handia somatzen dut kalean. Izan ere, hainbat arau ez direla errespetatzen konturatzen naiz, eta gainera, herritarrei bost axola zaiela. Adibide horietako bat semaforoen gertatzen dena da. Inork ez du berdea jartzen den are itxaroten errepidea igarotzeko. Ama naiz, eta seme-alabekin ibiltzen naiz askotan kalean. Uneoro irakasten egon behar izaten dugu, eta ikasi behar duten gauzetako bat gorrian badago itxaron behar dela da. Jendea gorrian pasatzen bada, ordea, pikutara irakatsitakoa. Heziketa kontua da.

Ana.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Hilaren 27rako antolatu dute 'Ibarra, azoka eta piparra' azoka berezia

Ibarra » V. Euskal Herriko Piparraren Leihaketa Gastronomikoan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 20a bitarte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak, Xepla JKE eta Hauspoa elkarteek antolatuta, *Ibarra, Azoka eta Piparra* eguna egingo dute hilaren 27an. Aurten ere, Piparraren V. Euskal Herriko Lehiaketa Gastronomikoa izango da azoka bereziaren egun berean.

Goizeko hamarretan hasi eta 14:00ak arte luzatuko den azoka, Emeterio Arrese parkean eta San Bartolome plazan egingo dira.

Emeterio Arrese parkean, Ibarrako baserrietako abereak (behiak, zaldiak, ardiak, txekorrak, ahuntzak...), jakiak, barazkiak, piperrak... egongo dira. 10:00etatik 12:00ak bitarte Tolosaldeko XII. Ezti-Txapelketa egingo dute eta 10:00etatik 13:00etara berriz, V. Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa izango da. San Bartolome plazan 10:00etatik 14:00ak arte artisauak, tailerrak, argazkiak... egongo dira ikusgai.

250 elkarteri gonbita eginda

V. lehiaketa honetan parte hartzeko gonbita, 250 elkarteri luzatu diete. Dena dela, ez du esan nahi hortik kanpo inork parte hartu nahiko balu ezin duenik, beti ere, aldeaz aurretik izena emanda. An-



Joan den urteko Ibarrako piperraren lehiaketako une bat. ANDER OTEZABAL

tolatzaileek, parte-hartzaileen esku sukaldeak, Ibarrako piparrak, tipulak, eta pipar gorri eta berdeak jarriko dituzte. Gainerako osagai guztiak eta sukaldeko tresnerianorberak eraman beharko ditu.

Parte-hartzaile bakoitzak honako hauek prestatu beharko ditu: *Piperrada* eta bertan nahitaez Ibarrako piperra sartu beharko da. Eta beste aldetik, Ibarrako Pipe-

rraz egindako sei pintxo guztiak ere berdinak, eta hotzak nahiz beroak izan ahalko dira. Ibarrako piperraz gain nahi diren osagaiak erantsi ahal izango dira, beti ere, piperra osagai nagusia izanik. Parte-hartzaileek, pintxoak eta *piperrada* lehiaketa lekuan bertan prestatu beharko dituzte goizeko 09:00etatik aurrera. *Piperrada* 12:00etan eta pintxoak 13:00etan aurkeztu beharko dizkiote epai-

mahaiari. Arau hauek betetzen ez dituenak kanporatuta geldituko dela jakinarazi dute.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko epea hilaren 20ean, igandea, bukatzen da, eta Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean, 943 67 03 99 telefono zenbakira deituta edota ibarrakult@euskalnet.net helbide elektronikora idatziz eman daiteke.

Izena ematerako orduan, nahi-taezkoak izango dira sukaldariaren izena eta abizenak, herria eta telefono zenbakia ematea. Sukal-

Piparraren V. Lehiaketa parte hartu nahi duenak hilaren 20a baino lehen izena eman beharko du

Tolosaldeko XII. Ezti-Txapelketa ere egun honetan izango da, Emeterio Arrese parkean

Baserriko abereak, jakiak, barazkiak, artisauak, tailerrak, argazkiak... ikusi ahal izango dira

dariak laguntzailearen bat izango balu, beraren datuak ere beharrezkoak dira. Bestalde, elkarteren baten izenean parte hartu nahi izanez gero, elkarteren izena adierazi beharko da.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, aurretik aipatutako telefono zenbakira deituta edota helbide elektronikora idatziz jaso ahalko du.

Lehen hirurentzat sariak

Lehiaketa guztietan bezala, lehen hiru sailkatuentzat sariak izango dira. Alde batetik, Pintxo-lehiaketako sariak egongo dira eta beste-tik, *Piperradakoak*. Bi lehiaketetako sariak berberak izango dira. Lehengoak, txapela, oroigarria eta 200 euro jasoko ditu. Bigarren sailkatzen denak, oroigarria eta 150 euro eta hirugarren egiten duenak, oroigarria eta 120 euroko saria izango ditu jasotzeko.

Aizkardik Tesorero eta Peña Vieja mendietara joateko irteera antolatu du

Villabona » Aizkardikoak hilaren 19an eta 20ean Europako Mendietara joango dira 05:00etan Olaederratik aterata.

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Elkarateak, hilaren 19 eta 20rako mendi irteera antolatu du Europako Mendietara. Inguuru haiek hobe ezagutu eta Tesorero eta Peña Vieja tontorrak egiteko aukera paregabea izan daiteke irteera.

Tesorero eta Peña Vieja

Larunbatean, Fuente De-tik (1.078m.) abiatuko dira eta Liordes eta Casares muinoetatik pasa ostean, Cabaña Veronicarantz hartu eta gero Tesorero (2.570 m.) mendian tontorra igoko dute. Behin



Naranjo de Bulnesen magalean aurkitzen da Urrillosko aterpea. HITZA

tontorra eginda, Horcados Rojos muinora jaitsiko dira eta gero, Urrielloko aterpetxera zuzenduko dira (Naranjo de Bulnes) eta bertan pasako dute gaua.

Lo egin eta aterpeangosalduta indarrak hartu ostean, Peña Vieja (2.619 m.) mendian tontorrera igoko dira. Horretarako lehenengo, Urrielloko tontorra inguratuko dute hegoalde-tik eta ondoren, Bonita muinotik barrena Peña Vieja tontorrera iritsiko dira. Ondoren, larunbateko abiapuntura, hau da, Fuente De-ra teleferikoan jaitsiko dira. Behin bitontorrak eginda, autobusean sartu eta etxera itzuliko dira.

Kostua eta izen-ematea

Bidaia-kostua FEDME karneta ez daukatentzat 70 euro izango da eta karneta dutentzat berriz 60 euro. Aizkardiko bazkide dire-

nek 5 euroko beherapena izango dute. Prezio honen barruan, autobuseko bidaia, aterpetxea mantenu erdiarekin eta teleferikoan jaitsiera sartzen dira.

Irteera honetan izena eman nahi duenak, irailaren 17a bitarte izango du aukera 649 717 182 telefono zenbakira (20:00etatik 22:00etara) deituz edota ostegunetan (21:00etatik 22:00etara) Aizkardi Elkartera joz.

Irteera, larunbatean 05:00etan izango da Villabonako Olaederra kiroldegitik.

Argazki bilduma

Bestalde, 60 urtean Amasa-Villabonatarrek izan duten mendizale-tasunaren historiaren inguruan, Aizkardi Mendi Elkaratekoak argazki bilduma bat osatu nahian ari dira.

Amasa-billabonatarren mendi jarduerari buruzko argazkiak edukiz gero eta bilduma hori osatzen lagundu nahi izanez gero, argazkiak emateko aukera hilaren 15a bitartekoa dela azaldu dute. Argazkiak Aizkardi Elkartera eraman beharko dira.

Autoa eraginkorki gidatzeko lau orduko ikastaroa antolatu dute

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak Tolosaldea Garatzenekin batera Mugikortasun Astea antolatu du hilaren 16tik 22ra. Egitarauan baita antolatu den ikastaroetako bat autoa eraginkorki gidatzeko izango da. Lau ordu iraungo ditu eta ikastaroen helburua autoak kontsumitzen duen erregaia %15ean gutxitzea izango litzateke.

Hilaren 17an egingo da ikastaroa, 16:00etatik 20:00etara, eta euskaraz izango da. Eskola teoriakoak udaletxeko kultura aretoan egingo dira eta eskola praktikoak herriko errepideetan zehar. Ikastaroa doakoa da, baina izena ematen duen pertsonaren batek huts eginez gero, 116 euro ordaindu behar dira. Izena emateko azken eguna hilaren 9a da.



Laburrak

Emozioei buruzko hitzaldia Alkartasuna biltokian

ANOETA • Kutxak antolatzen dituen hitzaldien artean, astelehenean, hilak 7, emozioei buruzko hitzaldia izango da Alkartasuna biltokian. Izarne Lizasok emango du hitzaldia eta bere izenburua *Emozioekin bizitzeko ikastea, emoziozko adimena* izango da.

Euskara ikasteko taldeak sortuko dira aurten ere

VILLABONA-ZIZURKIL • Villabonako eta Zizurkilgo Udalek antolatuta, herrian bertan euskara ikasteko taldeak sortuko dira. Izena emateko epea hilaren 7tik 25era izango da Villabonako udaletxean eta Zizurkilgo Aurrera plazako udal bulegoetan. Bestalde, Zizurkilgo alfabetatze ikastaroa eskainiko da Iriarte kultur etxean, asteazkenean 19:00etatik 20:30era. 70 euroko prezioa izango du alfabetatze ikastaroak.

Haurren jokoak festei hasiera emateko

ALKIZA • Atzo hasi ziren Alkizako festak eta haurrak izan ziren protagonista lehenengo ekitaldian. Hala, jokoak antolatu zituzten frontoian, kanpoan xirimiria ari baitzuen: lokotx bilteta, patata buruan helduta bikoteka egin beharreko lasterketa... Tatuajeak jartzeko eta aurpegia margotzeko

txokoak ere atondu zituzten frontoian bertan. Buruhandiek ere ez zuten huts egin eta jokoak ikusten ari zirenei maskuriarekin astintzen aritu ziren. Jokoak bukatu ondoren, Txan Magoaren txanda izan zen eta emanaldia frontoian bertan egin zuen. I. GARCIA

Lizartzako Udal Alternatiboak antolatutako festak gaur hasiko dira

Lizartza • Otaolak bando bidez dioenez, Udalak ez du «eurorik gastatuko» festetan, aurreko urtean «boikoteatu egin zirelako».

ERREDAKZIOA

Lizartzako Udal Alternatiboak (LUA) antolatuta gaur hasiko dira jaiak herrian. Lau egunetan anto-

latu dituzte, astelehena salbu, eta asteartean amaituko dira. Festak antolatzeko laguntza tabernetatik, enpresetatik, jartzen dituzten txosnak eta zozketaren bitartez jasotzen dute. Zozketan, esaterako, hainbat urdaiazpiko eta Asegarce enpresako pilotariet sinatutako kamiseta dira sariak. Txupinazoa gauerdian botako dute, baina au-

rretik kalejira eta herri afaria izango dituzte. Txupinazoarekin batera danborrada izango da.

Udalak ez ditu antolatutako

Bestalde, Regina Otaola alkateak zabaldu duen bando batean azaltzen duenez, «udal korporazioak inolako ekintzak antolatzeko eua-rorik ez gastatzea» erabaki du,

«aurreko urtean, argi etagarbi, boikoteatuak izan zirelako. Alferriki botatuko dirua».

Otaolak bandoan gaineratzen duenez, «gaur egungo krisi ekonomikoak eskatzen du aurtengo festetarako onartutako diru kopurua herrian burutu eta herriaren onurarako izango diren beste lan batzuetan erabilia izateko».

» EGITARAUA

Irailak 4, gaur

- 20:30. Kalejira Karobitxulo taldearekin, buruhandiek alaituta.
- 21:30. Herri afaria.
- 00:00. Txupinazoa eta danborrada. Ondoren kontzertuak Emom eta Unsainekin.

Irailak 5, larunbata

- 10:00. Goiz deia Lizardi txistulari taldearekin.
- 12:30. II. Patata Tortilla Lehiaketa.
- 14:00. Herri bazkaria trikitilariet alaiturik.
- 17:00. Ume jolasak.

- 18:00. Herri kirolak Aimar Irigoien erakustaldiarekin.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 23:30. Su artifizialak.
- 00:00. Presoen aldeko kalejira. Ondoren kontzertuak, Giza Proiektua eta Zesatek taldeekin.

Irailak 6, igandea

- 10:00. Goiz deia Lizartza gaiteroekin.
- 11:30. Pilota partidak herriko harrubikoekin artean. Jaime eta Hernani eta Garikoitz eta Imanol ariko dira lehiatzen. Ondoren, zesta punta partida.

- 13:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia.
- 18:00. Segara apustua nazioarte erara, Gabirondo eta Mitxelena-aren artean.
- 20:00. Gabezin taldearen emanaldia.

Irailak 8, asteartea

- 10:00. Goiz deia Karobitxulo trikitilari taldearekin.
- 11:45. Hamaiketako Txirrita Elkartearen.
- 14:00. Helduen bazkaria Ostatuan. Arratsaldean, dantzasoka eta antzerkia.





Jexuxmari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra Donostian egongo dira bihar, Maila Nagusiko finalean. HITZA

Jexuxmari Mujika eta Joseba Otaegi Gipuzkoako Aizkora Txapelketan

Aizkora » Maila Nagusian bost aizkolari ariko dira lanean Donostiako Trinitate Plazan, bihar 18:00etatik aurrera.

ASIER IMAZ

Gipuzkoako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketa jokatu dute bihar 18:00etan Donostiako Trinitate Plazan. 10 pago enbor mozten bost aizkolari ariko dira eta hauetatik bi eskualdekoak: Jexuxmari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra.

Boskotea ondorengo beste hiru aizkolari osatu dute: iazko txapelkunak, Iñaki Azurmendik, Joxemari Olasagastik eta Luisuari Txapartegik.

Egin beharreko lana ondorengo izango da: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oimbiko, hau da, 72 ontzako bi pago enbor.

Iazko txapela defendatzen duen Azurmendik, 33 minutu eta 19 segundotan amaitu zuen lan hau.

Otaegi Lasaren ordez

Jexuxmari Lasa Legorretakoa ere Maila Nagusian dago eta biharko txapelketan aritzeko da, baina ebakuntza izan zenez eta oraindik osatu ez denez, bere lekuan Joseba Otaegi plazaratuko da.

Lasaren ebakuntza alde aurretik jakina zenez, hots, II. Mailako finala jokatu aurretik, Gipuzkoako Federazioak II. Mailako aurtengo txapelkunak Maila Nagusiko Txapelketa jokatu zuela erabaki zuen; horregatik egongo da bihar Joseba Otaegi Trinitate Plazan, berak irabazi baitzuen aurtengo II. Mailako Txapelketa, uztailearen 26ean.

Donostian, bihar 18:00etatik aurrera jokatu den lehian, azken postuan sailkatzen denak jaisiera-ko proba jokatu du Jexuxmari Lasaren kontra, azken honek hala nahi badu bederen, bestela maila galduko du.

Protagonisten esanak

Joseba Otaegi duela bost urte hasi zen aizkora buru belarri. Maila nagusiko finala «sari bat bezala» hartu du zizurkildarrak eta Trinitate Plazara «presio gabe» irten dela onartu du: «lasai hasi eta ahal den lanik politena egitera joango naiz».

Maila nagusiko finala prestatzeko ez du denbora gehiegi eduki Otaegik, baina horrek baino beldur handiagoa ematen dio laguntzaile-rik gabe aritzeak: «Azkeneko bi urteetan mota honetako lana egiten ohituta nago, apustu eta etab. Baina hemen gauza asko aldatzen da, laguntzaile-rik gabe ibiliko baikara:

ez aizkora emateko, ez ura emateko... diferentzia handia dago laguntzaile alboan izan edo ez izan. Horrenbesteko lana bakar bakarrik egiteak errespetu pixka bat ematen du».

Jexuxmari Mujika lesio batetik ateraberrira da. Maiatzaren amaieran hasi zen proba prestatzen eta ongi ikusten omen du bere burua eta gorputza. Hala eta guztiz ere, jakinak dira prestakuntzarako ibartarrak dituen arazoak: lanordu luzeak ogibidea, desordutan sarri entrenatu beharra...

Biharkoari begira, Maila Nagusira eta lan luze hauetara «iritsi berria» dela aipatu du Mujikak: «Inoiz ez ditut horrelako lanak txapelketa batean egin. Abuztuaren pare bat aldiz lan hau egin dut entrenamenduetan eta ezin amaituan ere geratu naiz. Bero handia egiten zuen baina buruhauste asko ikusten dut baina ez dakit zer atariko den. Lan txikitetan topera hasten zara eta normalean irauten duzu. Baina hemen ezin duzu topera atera, lehertzeko arriskua duzu horrela hasita. Noizean behin ondokoak nola doazen ikusten duzu baina zure martxa hartu behar izaten duzu lan hauetan».



Iaz ospatu zen Aresoko Mendi Martxaren lehen edizioa. HITZA

Aresoko II. Mendi Martxan parte hartzeko aukera

Mendia » Aresotik 08:00etan irtenko dira mendizaleak, 4 edo 5 orduren ostean puntu berean amaitzeko.

A. IMAZ

Iaz martxan jarritako egitasmoak bigarren edizioa beteko du aurtengoan, hau da, etzi ospatuko da Aresoko II. Mendi Martxa 08:00etan hasita.

Proba ez da lehiakorra izango eta zailtasun ertaina edukiko du. Guztira 26 kilometro inguruko ibilbide zirkularra egin beharko dute mendizaleak eta ondorengo puntuetatik igaroko dituzte besteak beste: Ulizar; Urkiza; Pagozelai eta Lau Mugarrieta. 4 edo 5 orduko itzulia egin ostean, partaideak

haserako gunera iritsiko dira, hots, Aresora.

Parte hartzeko zer egin?

Aurrez izena emateko epea hila-rena 2an amaitu zen. Hala eta guztiz ere egunean bertan, etzi, Aresoko plazan horretarako aukera egongo da, 07:00etatik 07:45era bitarte. Goizean izena ematen dutenek 6 euro ordaindu beharko dituzte.

Mendi Martxaren baitan luntzak, opariak eta zozketak egongo direla aipatu dute ekimenaren antolatzaile eta laguntzaileek, hauen artean Aresoko Udala, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Kirol Mankomunitatea aurkitzen dira.

Informazio gehiago nahi dutenek 948 60 45 45 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango dute, edota www.mendinavarra.com web orriara jo bestela.



Probaren amaieran zozketak eta sariak egongo dira. HITZA

ELDUAIN
ELDUAINGO UDALAK

HERRIKO JAIETARA
GONBIDATZEN ZAITUZTE
EKITALDI UGARI,

MUSIKA MUNDIALA
AFARI ZEIN BAZKARI
GOXO GOXOAK

KONTZEJU
TABERNAK



Autobus zerbitzua izango da ostiralean eta larunbatean
Tolosako Santa Klaratik
23:00etan Elduainera eta goizeko 4:30ean Tolosara



Asteko azokan postua jarri nahi dutenek orain dute eskaera aurkezteko aukera

Ibarra » Hilaren 24tik aurrera ostegunero izango da merkatua, bertako produktuekin Emeterio Arrese plazan.

ERREDAKZIOA

Hilaren 24tik aurrera astero-astero egingo dute azoka Ibarra. Hori dela eta, bertan postuak jarri nahi dituztenei dei egiten die Ibarra Udalak, euren eskaera udaletxera aurkezteko. Honetarako epea hilaren 14an amaituko da. Honenbestez, hil honen amaieratik aurrera, ostegunero, Emeterio Arrese plazan, 08:00etatik



Uda baino lehen egindako azokek arrakasta handia izan zuten. R. CALVO

14:30era azoka izango da, bertako produktuekin.

Udalak aurreikusitakoaren arabera, 24 postu inguru izango dira astero. Horietako bost helduen jantziekin hornituta eta gainerakoak produktu mota ezberdinekin.

Abuztuaren 3an ireki zuten Udalak asteko azokan postua eskatu nahi zuten orok eskaera egiteko epea. Zabalik egon den hilabeteak opor garaiarekin bat egin duela kontuan hartuta, aipatutako aldia hilaren 14ra arte luzatzea erabaki dute.

Postuen esleipenerako baldintzak udal ordenantzaz eta baldintza pleguan zehazten dira. Horien

artean daude, Gizarte Segurantzaz alta emanda egotea eta salmenta mugikorrera lotutako ordainketak eguneratuak edukitzea.

Hiru urtetik gorako antzinatasuna duten Ibarra merkatariak, Tolosaldean erroldatuta daudenean eta Ibarra aurrez 10 urte baino gehiago bizi izan direnek lehen-tasuna izango dute aipatutako ordenean. Gainerako baldintzak, nola azokaren funtzionamenduari zehaztasunak, Ibarra udal-txeko ingurumen sailean kontsultatu ahal izango dira 09:00etatik 13:00etara, edota www.ibarrakoudala.net webgunean.

Udalerriko bizilagunek produktu eskaintza zabal bat izango dute aukeran postuetan, besteak beste, hestebeatek, gazta, fruta eta barazkiak, pastak eta gozokiak. Bakailoa, oliba eta fruitu lehorren eskaintza ere egongo da, eta baita arroparen ere.

Ikasturtea sasoian hasteko, hainbat jarduera eta ikastaro, Usabalen

Tolosa » Iazko arrakastaren ondoren, kirol batzordeak berriro martxan jarri du 'Heuk proba ezan' ekimena.

ERREDAKZIOA

Asmo honekin eta zenbait helburu berriekin ekiten dio jende askok hastear dagoen ikasturteari. Garai hau, gauza berriak ikasteko eta orain arte gauzatu gabeko ekintzak aurrera eramateko garai ona izaten da. Hainbatek, kirola egiten hasia izango dute buruan, edo besterik gabe, aurreko urteetako jardueren jarraitzea. Usabal kiroldegia jarduera eta ikastaro berrien eskaintza zabaldu du orain ere Tolosaldeko herritarrek erakartzeko kirolaren eta ariketa fisikoaren mundura.

Hiruhilabetea banatzen dira ikastaro batzuk, eta beste batzuk urte osoak dira. Jardueren egutegia hilaren 28tik aurrera zabal-tzen da. Hau da, aste horretan hasiko dira ikastaro guztiak. Bestalde, izena emateko epea datorren astean zabalduko da, hilaren 10ean, hain zuzen ere. Egun horretatik



Uda hasieran ekin zieten eskaladako ikastaroei Usabalen, eta aurten ere jarraituko dute. HARRIET BELLOSO

aurrera Usabalgoko bazkide direnek egin ahal izango dute matrikula, eta gainontzekoek, hilaren 16a baino beranduago.

Haurrei zuzenduta bost ikasta-

ro antolatu dituzte: kirol ludoteka, fama dance (hip hop eta funky), eskalada, haur igeriketa eta haurtxoen igeriketa.

Helduei dagokionean, lau jarduera, urte gutzirako daude antolatuta: aerobika, mantenu gimnastika, yoga eta hirugarren adinekoen gimnastika. Hiru hilabeterako ekintzak berriz hauek dira: cycling, helduen igeriketa, pilates, GAP, acuagyma, patinajea, tai chi chuan, kempo (defentsa pertsonala), karate, eskalada eta areto dantza.

'Heuk proba ezan'

Joan den ikasturtean, *Heuk proba ezan* lelopean, Udalak emakumei

zuzendutako lasterketak prestatzeko lehenengo doako ikastaroa bultzatu zuen. Deialdiaren arrakasta ikusita, aurtengo ikasturterako ere beste ikastaro bat antolatzea erabaki dute. Xedea da, «edozein emakumek korrika hasi eta entrenatzeko aukera izatea, distantzia ertain eta luzeko lasterketei begira». Interesa dutenek Usabal kiroldegian eskura dezakete informazio gehiago, baita izena eman ere. Horretarako epea zabalik dago jada. Saiok astean bitan izango dira, urritik ekainera bitartean. Hala ere, ordutegia zehazteke dago oraindik, hauek taldearen eta begiralearen arabera antolatuko baitira.



Udaberri taldeko gaztetxoak. N. URBIZU

Udaberri dantza taldearen ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

Tolosa » Datorren astean, hilaren 9tik 11ra bitartean egin daiteke Sakramentinoen elizaren ondoan duten lokalean.

ERREDAKZIOA

Udaberri dantza taldekoak ikasturte berrira begira jarrita daude, eta oraingo honetarako ere, urterot lege, haurrentzako saioak antolatu dituzte.

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek datorren asteazken, ostegun eta ostiralean izango dute izena emateko aukera. Horretarako, Udaberri Sakramentinoen alizaren ondoan duen lokalera joan beharko dute interesatuek. Hau, 17:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik.

Ikastaroko saioak ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan izango dira. Dena den, hauek talde kopuruaren arabera zehaztuko dira. Saioei, hilaren 18an ekingo diete. Bestalde, ekainean izena eman zutenen kasuan, beraien saioen egunak eta ordutegiak dantza taldearen egoitzan esekita, ikusgai egongo dira datorren aste-tik aurrera.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 679 8190 42

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da amona bat zaintzeko. In-

teresatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 649 6259 77

SALGAI

■ **Granja.** Granja salgai Berrobin. 1.600 metro2. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 652 75 33 92.

Pello Odriozola aske uztea exijitu dute

TOLOSA ■ Hilabetero bezala, Lizardi kultur elkarteko kideek elkarretaratzera deitu zuten atzo, Pello Odriozola presoak aske egon beharko lukeela eta haren egoera salatzeko helburuz. Plaza Zaharrean egin zuten elkarretaratzea, ohi bezala, *Pello Lizardira* lelopean. Urtebete eta bi hilabete bete ziren atzokoan Lizardi elkarteko kide den tolosarrak aske egon behar zuenetik. Elkartekoen hitzetan, «lege bidegabe batek luzatu dio kondena, 20 urte baino gehiago barruan eman ondoren», eta hain zuzen ere, horixe salatu nahi izan zuten atzo eginiko protesta ekitaldian. **IT.**



Audientzia Nazionaleko Eloy Velascoren erabakia ez dute ikertuko

Ibarra ■ Maite Aranalde kaleratzeko erabakiaren aurrean zuzen jokatu zuela adierazi dute.

ERREDAKZIOA

Audientzia Nazionaleko Eloy Velasco epailearen erabakia ez dute ikertuko azkenean. Maite Aranalde ibartarra kaleratzeko erabakia hartu zuten pasa den ostegunean, eta Gobernu aretoaren esanetan, Velascok «zuzen jokatu zuten eta arrazoiak zituen» horretarako.

Politika ■ «PSOEek ezker abertzalearekin amaitzeko estrategiaren ondorio» izan direla gertatutakoak adierazi dute.

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldeko ezker abertzaleak azken aste eta hilebeteetan eskualdean gertatutakoak salatu du, «PSOEek ezker abertzalearekin amaitzeko diseinaturiko strategiaren ondorio izan baita». Eurek azaldu bezala, uda osoan zehar, «errepresio estrategia eroaren puntu gorenak ezagutu ditugu». Ibarra, Lizartzan eta Villabonan gertatutakoak ematen dute horren adibide, eta «egoera hori salatzeko helburuz» herritarrak deitu dituzte mobilizazioetan parte hartzera. Lizartzan, esaterako, etzi, 19:00etan egingo dute manifestazioa, Kontsuelo Agirrebarrena herritarren espertxeratzea salatzeko.

Maixel Arrietak Tolosaldeko ezker abertzalearen izenean hitz egin zuten, atzo eginiko agerraldian. Villabonako alkateak azaldu-takoaren arabera, «preso politikoan argazkien harira hasitako gurutza, Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu da, presoekiko elkartasun eta maitasun keinu oro desagertzeko apustua uda honetako ikur nagusi izaniko». «Kanpaina errepresibo» honen helburua zein den argi du ezker abertzaleak: «gatazka politikoa desitxuratu eta existentzia bera ukatu».

Alderdien «erantzun eza»

Hala, azken asteetan eskualdean jazotako hainbat gertakariaren berri eman dute «errepresioaren adibide» bezala: «jazarpen polizial itogarriaren ondorioz hildako» Remi Ayestaran Villabonako alkateordearen heriotza, Ibarra iragan astean «preso baten lagun eta senideekiko izandako oldarraldia», eta Lizartzako Kontsuelo Agirrebarrenaren atxilotze eta es-

Azken asteetako gertakariak salatzeko mobilizazioetara deitu du ezker abertzaleak



Atzo egin zuten agerraldia Tolosaldeko ezker abertzaleak. **IT.**

petxeratzea. Gertaera hauen guztien aurrean alderdi politikoek ez dutela erantzunik eman salatu dute: «Ibarra apartheidean osaturiko udalakez du behatzik mugit-

Etzi manifestazioa egingo dute Lizartzan Kontsuelo Agirrebarrenaren espertxeratzea salatzeko

tu eta Amasa-Villabon Udaleko gainerako alderdiak Remiren gertatzen osten desagertuak izan ditugu».

Lizartzaren kasuan, azken bi legegaldietan «apartheid muturrekoaren adibide argia» izan dela adierazi dute: «Lehen legegaldian Egibar buru zuten PNVk inbaditu zuten, eta orain Otaolak Espainian ehiza trofeo gisa erabiltzen du Lizartza». Hala, Kontsuelo Agirre-

barrena herriko hautetsia eta herritar ugari «inkurtsio militarren gainetik herriaren alde» aritu izan direla gogoratu dute, eta «Lizartza abertzale eta ezkertiarra murratzen jarraituko dutela, oztopoak oztopo».

Tolosaldeko ezker abertzaleak gaineratu duenez, «Euskal Herriak aldaketa politikoa eta soziala gauzatzeko zabalik dagoen aukera kolpetik itxi nahi du PSOEek, eta aldaketa hori eman dadin motorea den ezker abertzalea desagert-

tarazteko apostua egin du». Ezker abertzalearen ustez, ordea, «PSOEek ez dauka arazoa ezker abertzalearekin, arazoa bere etorkizunaren inguruan erabaki eta bere buruaren jabe izan nahi duen herri batekin dauka».


Laburrak

Peio ta Pantxoaren kontzertua hilaren 11n

TOLOSA ■ Peio ta Pantxoaren kontzertua izango da hilaren 11n Leidor aretoan, 22:00etatik aurrera. 40 urtez gurekin kantuz izeneko emanaldia eskainiko dute, eta saioa zuzeneko grabaketa egiteko ere baliatuko dute. Bertarako sarraera Leidor aretoko leihatilan nahiz kutxanet-en izango dira eskuragai ohiko moduan.

Saharar Festa izango da gaur, Plaza Berrian

TOLOSA ■ Saharar Festa izango da gaur Plaza Berrian, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta. 16:00etan hasiko da festa. Haima bat jarriko dute, eta bertan tea dastatzeko aukera izango da, eta baita henna tatuajeak egitekoa ere. Ondoren, 17:00etan, haur jolasak izango dira. 19:00etan ekitaldi politikoa izango da Frente Polisarioko EAEko ordezkariaren eskutik. 20:00etan, trikiti doinuak izango dira nagusi plazan, Uzkudun ahizpak trikitalariekin, eta ondoren afarirako unea etorriko da. Afalostean, saharar musikaz gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek, Estrella Polisario taldearekin, hain zuzen ere.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ X. HITZA Argazki Lehiaketara. Hasi zaitzekete Argazki Lehiaketara zuten udako argazkiak bidaltzen. Lehiaketara aurkezten diren irudi guztiak izango dira ikusgai Interneten, eta ondoren zortzi finalistak ere jarriko ditugu bozka eman ahal izateko:
www.tolosaldekohitza.info



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Saharar festa: 16:00etan Haima jarri, te dastaketa eta henna, 17:00etan haur jolasak, 19:00etan ekitaldi politikoa, Frente Polisarioko ordezkariarekin, 20:00etan Uzkudun ahizpak trikitilariak, 21:00etan herri afaria eta 22:30ean kontzertua Estrella Polisario saharar musikarekin.

Jaiak

■ **Alkiza.** Kalejira eta poteoa, 21:00etan Barrikotea, 23:00etan bertsolari jaialdia Egaña, Lizaso, Lujanbio, Irazu, Zubeldia eta Peñagarikanorekin (gai jartzaila: Unai Elizasu), ondoren Bidebatez taldearekin erromeria.
■ **Bedaio.** 20:00etan festen hasiera suziriekin, 20:05ean Patata Tortila Lehiaketa, 21:00etan Zagi Ardoa, ondoren erromeria Elus-tondo anai-arrebekin eta 4:00etatik goizalderarte indarrak hartzeko txokolatea eta bizkotxoak.
■ **Elduain.** 17:00etan suziriak, ondoren puzgarriak eta tailerrak, 21:30ean herri afaria Urdelar biltokian, 24:00tan Bizardunak eta Des-Kontrol taldeen kontzertuak (tartean bikote baten streaptease ikuskizuna).
■ **Tolosa.** Izaskun auzoan suziriak 18:00etan, triki-poteoa, 22:45ean danborrada Bonberenea Txaranga-ekin eta Laket taldea Sputnik plazan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian, urriaren 3ra arte.

Musika

■ **Tolosa.** Border Line eta Peachy joko taldeen kontzertua Kultur Etxean 21:00etan.

Mendi irteerak

■ **Areso.** Datorren igandean Aresoko II. Mendi Martxa. Izen-ernatea, udaletxean, kirolmank@gmail.com, www.mendinavarra.com, 948 60 45 45 zenbakian edo irteeran egin daiteke.


» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1.943 673649.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5.112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

X. Argazki Lehiaketara Suitzatik bi irudi eder hauek bidali dituzte oraingoan. Hasi zuen argazkiak bidaltzen, sari interesgarriak dituzue aukeran!

Alpeen magaletik



JUNFRAU (SUITZA) • Edurne Ezeizak Suitzako paisaia eder honekin hartuko du parte lehiaketan. «4.000 metro inguru neurtzen ditu Alpeetako mendi honek. Bere magalean paisaia zoragarri hau aurkitu genuen. Turista askoren jopuntua izaten da Suitzako mendirik altuenetakoa baita hau; gainera esfortzu handirik egin gabe trenez igo daiteke ia tontorreraino». EDURNE EZEIZA

GRUYERE (SUITZA) • Nork ez du probatu Gruyere gazta? Baina denek ez dute herria bera ezagutzeko zortea. Ez da Joneren kasua, uda honetan bertan izan dela kontatu baitigu Argazki Lehiaketara bidali duen argazki honekin: «Oso ezaguna da Suitzako Gruyere herriko gazta. Herrixka txiki honek jaki preziatu honez gain paisaia ederrak ere eskaintzen ditu. Herralde osoan bezala, lore eta landare koloretuek apaintzen dituzte etxe nahiz elizetako lorategiak. Oso gomendagarria da herralde hau ezagutzea».

JONE GOROSTARZU (BERASTEGI)



A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak